

URRIAK 6



kilometroak

izpiz izpi
Azpeitia 2024

GIPUZKOA

Ekin.

-
*Gipuzkoa
oparoagoa
izateko.*

Zaindu.

-
*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

-
*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA

Foru Aldundia

Agurra

Kilometroak non? Azpeitian! Kilometroak nork antolatatu? Azpeitiko ikastolak! Badator beste urte batez Kilometroak jaia, Euskararen eta Ikastolen jaia! Gogotsu eta ilusioz itxaroten dugun urriko lehen igandeko jaia.

“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak” dio Xabier Leteren kantan, eta horren isla dugu Kilometroak jaia. 1977an hasitako bideari eutsi dio beste urte batez Azpeitiko Ikastolak.

Orduan guraso zirenak, gaur egungo aiton-amonak, orduan ikasle zirenak gaur egungo gurasoak, eta gaur egungo ikasleak orduan izan ziren ikasle eta gurasoen seme-alaba eta bilobak. Denok ikastola gara! Zurak eta ezpalak!

Herritik sortuak, Ikastolok urte guzti hauetan gure herrietako gazteen bidelagun izan gara. Bide horretan, unean uneko behar eta erronketara moldatzeko gaitasuna erakutsi dugu ikastolok, eta hortan gogotsu jarraitzen dugu. Gaur egun hain azkar eta zalapartan bizi den gizartean, berehalako kontsumoan bizi den gizartean, eta hain indibidualista den gizarte honetan, Ikastolok ez dugu erronka makala: gizartean dagoen aniztasunari erantzutea, euskararen ezagutza eta erabileran urratsak egitea, eta hau guzti hau, Hezkuntza Lege berri baten garapen testuinguruan. Baina badugu erronka horri aurre egiteko gakoak: Ikastola bera! Sorreratik ikastolok

ditugun balio eta izaerak, herritik eta herriarentzat sortuak, auzolanean eta herrigintzan, euskaraz, gaurko ikastoletatik “BIHARKO IKASTOLAK BIHARKO EUSKAL HERRIA ERAIKITZEKO” bideari ekin diogu Zazpigarren Batzarren ondotik.

2024ko Kilometroetan, honen guzti honen erakusgarri dugu Azpeitiako Ikastola. Bertatik bertara eta denontzat antolatzen ari da jaia, Herrigintza, Euskara eta Aniztasuna oinarri dituela.

Aurtengo kantuak dioen moduan, “Izpiz izpi piztu elkarrekin, Ikastola auzo herri auzolanarekin izango dugu gizartearen zutabe berri, etorkizuneko kimuen buru gure hizkuntzaren aberri”.

Urriaren 6an denok Azpeitian izango gara, Euskara eta Ikastola IZPIZ IZPI argitu eta loratzeko haziak eraiten, elkarrekin, auzolanean indartsuagoak garelako. GU IKASTOLA garelako!

Alaitz Perez de Arenaza
Kilometroak kultur elkarteko
lehendakaria



axkiola
elektrikari lanak
telf: 606306368





Elkarrizketa: Gorka Artola eta Alaitz Epelde

“Ekintza umilagoak egin, baina arrastoa utziko duten gauzetan indarra jartzea izan da lehentasuna”

Auzolan handiaren urtea bezala definitu dutenaren hondarrean dira Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibian. Alaitz Epelde Artezkaritza kontseiluko kidea eta Gorka Artola Kilometroak jaiaren koordinatzailea pozik daude urteak eman duenarekin, eta gogotsu daude urriaren 6ko festa handirako.

Nola hartu zenuten KMK antolatzeko lana?

Epelde: Ikastolen Elkartetik etorri zitzaizkigun, antolatuko al genuen esanez. ‘Zergatik ez?’, pentsatu genuen. 2011n Azpeitian azkena egin zirenetik urte batzuk pasatu dira.

Artola: Gure gurasoek lan handia egin zuten bere garaian, eta esaten genuen guri ere tokatzen zaigula. Ezin genuela ezetz esan. Ikastolen elkarte ongi portatu izan da gurekin, eta sare honetako kidea izateak konpromiso batzuk ere eskatzen ditu. Horixe izan zen erabakia: eskaera etorri zaigu, ondo erantzun behar dugu.

Epelde: Eta hor hasi ginen batarekin eta bestearekin hizketan, eta hasi ginen pixka bat neurria jartzen.

Orduan erabaki zenuten txikira egitea. Zergatik erabaki zenuten hori, eta zer esan nahi du?

Artola: Guretzat txikira da... Kilometroei eman zaien orain arteko neurria pixka bat birdimentsionatzea. Kilometroen urtea bera ere desberdin planteatzea. Hau da, ekitaldi asko eta handiak egin beharrean, neurria hartu, eta egin ditugunak inor ito gabe egiten saiatu gara. Inor ito gabe, baina era berean jendearen barruetan eragiten. Kilometroen urterako hiru ardatz zehaztu genituen, eta ardatz horiek barrura zein kanpora begira lantzeko indarra jartzea erabaki genuen.

Adibide bat da arropena, kilometroetan urteetako ohitura da asteburuero irteera mordo bat antolatzea, batera eta bestera, arropa asko saldu eta diru asko ateratzera. Guk erabaki genuen horri ere neurria jartzea. Arropekin atera nahi genuen diru kopurua zehaztu genuen, beste urteekin alderatuta txikia, eta hori lortzeko plana ari gara aurrera eramaten. Lanean, baina martxa lasaiagoan. Ez da ez dugula jendea lanean inplikatu nahi, alderantziz, auzolan handiaren urtea bezala izendatuta daukagu kilometroen urtea, baina ez duguna nahi da auzolan horretan jendea nekatzea eta erretzea. Zorionez, oraintxe bertan dugun behar ekonomikoa ere ez baita orain dela urte batzuk bezainbestekoa. Auzolan handiaren indar hori kanpora begirako proiektio umilagoa izango duten, baina arrastoa utziko duten lanak egitera bideratzen saiatzen ari gara.

Aurretik egin izan diren kilometroekin alderatuta, desberdina, beraz.

Epelde: Bai, ez da planteatzen bost edo sei guneko zirkuitu bat. Gizartea ere aldatu egin da, festa bera ere aldatzen joan da. Dimentsioz txikiagoa, baina goxoak izatea nahi dugu. Talde lanean, komunitatearekin aktibatuta. Mugak geuk jarrita, noraino iritsi nahi dugun, ito gabe, eta pozik.

Artola: Mugarrietan ere, alegia, urtean zehar egiten diren ekimenetan ere alde handia dago. Herrian egin diren beste kilometroetan dirua ateratzera bideratutako ekitaldi handi batzuk egin ziren, hori zelako lehentasuna. Eta ondo asmatu zuten. Oraingoan, ordea, premiak ez dira berberak, eta horregatik gehiago saiatu gara kontzientzia lantzen, gure hiru ardatzetan oinarrituta. Hurrengo egunean arrastoa utziko diguten ekimenak egitea hobetsi dugu.

Hiru ardatz jarri dituzue? Nola egin zenuten haiek zehazteko prozedura?

Epelde: Ikastolen elkartetik logoa diseinatzeko lelo bat eskatu ziguten. Ez genekien nondik abiatu, jada berandu genbiltzan, beste urteetan baino geroago hartu genuelako lekukoa, eta azkar egin behar genuen. Orduan bagenuen pertsona marabiloso bat gure artean [hunkitu egin da].

Artola: Andoni Garaizar [Kilometroak egitea erabaki ostean, aurkezpen ekitaldia izan aurretik hil zen, moto istripuz]. Pila bat lagundu zigun. Ikastolako gurasoak gonbidatuta kafe tertulia bat egin genuen. Asko elkartu ginen, eta Andonik bideratu zuen. Galduta geunden eta berak argitu zigun bidea. Ez genekien ze helburu, zein ardatz... Kafe tertulia bat antolatu zuen, denon barruak mugitu zituen, eta handik atera ziren helburuak.

Epelde: Ideia zaparrada bat egin genuen, bakoitzarentzat zer zen Kilometroak jasoz; gero biltzen saiatu ginen multzotan eta hortik atera ziren hiru ardatzak: euskara, kulturartekotasuna eta aniztasuna, eta herrigintza. Eta egia esan, logoarekin oso ondo etorri zen gero. Ongi lotu zuten, hiru koloreak, eguzkilorea hosto denak desberdinak... Gorkak ere eduki zuen pusketa bat hor.

“Dimentsioz txikiagoa, baina goxoa izango den egun bat antolatzen ari gara; talde lanean, eta komunitatearekin aktibatuta”

Zergatik aukeratu zenituzten euskara, kulturartekotasuna eta herrigintza?

Artola: Euskara: Euskararentzat Azpeitia eta bere ingurunea arnasmune dira, ia erabat euskaraz bizi gare-lako eguneroko harremanetan. Hala ere, hori ez da ohikoena Euskal Herrian, eta uste dugu gure ikasleek izan behar dutela euskara beraiekin eramango dutenak, bai unibertsitatera, lan mundura eta denera. Euskararen alde lanean jarraitu beharra dago, bestela desagertzeko arrisku handian dago. Azken urteetan pantailen ondorioz eta abar erabilera asko ari da jaisten, eta euskararen kalitatea ere...

Kulturartekotasuna eta aniztasuna: gizarte anitz batean bizi gara, eta denontzako gizarte bat nahi dugu. Denok elkarrekin biziko garena, eta denok eroso. Inklusioa sartzen dugu hor, ezberdinen arteko harremanak... beti ere euskara zubi hartuta. Azpeitia Kulturartekotasunaren proiektuan sartu da UEMArekin eta HUHEZIrekin, eta aukera paregabea izan da aurtengo ardatzetan lantzeko.

Eta Herrigintza. Ikastolak herritik sortuak gara, Azpeitian auzolanerako ohitura handia dago, herri aktiboa da, eta dena bertan egitea nahi genuen. Kilometro 0 filosofiarekin. Bideoklip bat egiteko ez dugu behar kanpoko musika talde bat, eta ezta grabatzera auskalo nora joan ere. Ikasle ohiek sortutako Skapaie elektrotxarangak egin du kantua, Kulturazekin grabatu dugu Dinamoan, eta haiek egituratu dute herriko eragileen parte hartzearekin osatu dugun bideoklipa.



“Gurasoekin egindako kafe tertulia batetik atera ziren hiru ardatzak: euskara, kulturartekotasuna eta herrigintza”

Esan duzue Azpeitia arnagune handia dela euskarentzat. Baina, zertarako behar da Ikastola Azpeitia bezalako herri batean?

Artola: Ikastolaren mugimenduak eta egituratzeak Euskal Herri osoa besarkatzen du. Nazio ikuspegia duen hezkuntza proposamen bat da ikastolarena: euskara ardatz duen herri eraikuntza pedagogikoa. Azpeitiko Ikastolak Urola erdian dagoen mugimenduari eta hezkuntza komunitateari ekarpena egin nahi dio, era berean. Euskal Herri osoan elkarrekin osatzen dugun sareari ere bai.

Epelde: Ikastolak ez dira Azpeitian bakarrik behar, ez dugu herri mailan bakarrik ulertzen ikastola. Euskal Herri osoko egitura edo sare bat da. Zazpi lurraldeetan hezkuntzari bateratasun eta oinarri bat eman nahi diona. Errealitate nazionala kontuan hartuta nazio eraikuntza ikuspegitik sortutako egitura bat. Euskal Herria herri gisa egituratzeko tresna. Euskal Herrirako ikuspegia Azpeitia gabe egin daiteke? Ez dugu uste. Zazpi lurraldeetako bateratasun hori emateko egon behar du Beskoitzek, egon behar du Tuterak, eta egon behar du Azpeitiak.

Artola: Aurten egin dugu zazpigarren biltzarra, ikastolei aurrera begira zein izaera eman nahi diogun erabakitzeke. Nolako hezkuntza eredu nahi dugun adosteko.

Zatikaturik daukagun gure herriari osotasunean eutsi nahi dion sare bat da ikastolena. Tokian tokiko legea eta currículumak ezberdinak izanagatik ere, Ikastolok eraikita daukagun euskal currículumean oinarritzen den hezkuntza proposamena partekatzen dugu. Guk erabakitzen dugu zer material sortu nahi dugun gure ikasleentzat, eta sortu egiten dugu. Elkartasun sare bat ere badaukagu: Beskoitzek behar badu hari ematen zaio Euskal Herriko guraso guztien artean osatuta daukagun elkartasun kuxako dirua. Euskal Herrian asko dauka emateko Azpeitiak, eta hori emateko modu bat da ikastolen sarean egotea. Beskoitzen, Maulen, Oionen eta Tuteran ikastola bat behar bada, zergatik ez da behar Azpeitian. Sare handi bat gara. Elkarrekin lanean ari gara, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Zer nahi zenukete uztea kilometro hauek gerorako?

Epelde: Jendea markatuta gelditzea, lan on bat egin dugulako, inor gehiegi nekatu gabe, eta pozik. Komunitatearen indar hori. Indar hori lortzea.

Artola: Andonik esaten zuen bezala: berriz egiteko gogo horrekin gelditzea. ‘Ederra da ba ikastola’ emozioa sortzea. Hori ikasle topaketetan lortu zen, adibidez. Ikasleak ikaragarri pozik ibili ziren, eta gero bi autobus joan ziren gure ikastolatik Herri Urratsera. Bernard Etxeparekoek azterketak euskaraz egitea eskatzeko egin zuten manifestaziora ere joan ziren gure ikasleak! Jendea emozionatzea lortzen badugu, horrek erantzuna dakar, eta arrastoa uzten du. Nik hori nahi nuke. Ikastola herrian oinarritutako eragile parte hartzaile bezala geratzea. Eta berriz ere gogoz geratzea.

Epelde: Lehen hiru ikastetxeak oso aparte zeuden herrian, eta orain lan asko egiten dugu elkarrekin. Unea ere egokia da. Kilometroak egingo ditugu, baina herri osoarentzat egingo ditugu, ez guretzat bakarrik. Eta eskuak zabalik etorri nahi duen guztiarentzat. Denontzako festa egun eder bat izatea nahi dugu.

Artola: Denok disfrutatu, lanean aritu direnek ere bai. Eta hurrena tokatzen zaienei poza ematea lekukoarekin batera. Hori zortea duzuen!

“Ikastola ez dugu herri mailan bakarrik ulertzen; Euskal Herri osoko egitura edo sare bat da, eta hor Azpeitiak ere egon behar du”



www.sammic.com



sammic

OSTALARITZARAKO HORNIGAIAK

ZURE JANGELA HORNITZEN DUGU



SALMENTAK Basarte,1 · 20720 AZKOITIA (GIPUZKOA) · Tel.: 943 15 70 95 · ventas@sammic.com

“Sudur gorritik egiten duguna ez da afizioa edo ogibidea, gure bizimodua da”

Urriaren 6an Azepeitian izango ditugu Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Kilometroen egunean herri osoaren berotasun eta eskertza inoiz baino gozoago sentitu dezaten. Izan ere euskara, aniztasuna eta auzolana, Kilometroen hiru ardatzetan eredu ditugu, eta halaxe esango diegu gure jai handian.

Lasarteko bulegoan hartu gaituzte pailazoek; kaleko jantziz dira Aiora Zulaika Pirritx, Joxemari Agirretxe Porrotx, eta Mertxe Rodriguez Marimotots, sudur gorririk gabe, baina betiko irribarre goxoz. Txokolatezko palmerak eskaini dizkigute, ordenagailua amatatu eta grabagailua martxan jartzen dugun bitartean.

2024ko Kilometroen ardatz diren euskarari, aniztasunari eta auzolanari buruz galdetu diegu, eta helburu eta bide ez ezik, argi dute hori izan zela, duela ia lau hamarkada, euren abiapuntua bera ere. Agirretxek azaldu digu: “Hiru ardatz horien bueltan jaiotzen ginen Lasarte-Orian, euskara taldeak, auzolanetik alegia, kulturalki eta sozialki oso anitza zen herri batean, eta euskara ardatz hartuta, ingurune anitz batean eta modu alai batean euskara suspertzeko hain zuzen”.

Ilido beretik mintzatu da Zulaika ere: “Gure taldearen misioa beti izan da euskara eta alaitasuna, hori izan da abiapuntua eta baita helmuga ere”.

***“Guretzako euskara balioak transmititzen dituen bitarteko eder bat da (...) Munduaren ikuskera bat da guretzat, eta denona eta denontzat izango den munduaren amets bat. Hori ere hizkuntzak ematen digu”
Joxemari Agirretxe ‘Porrotx’***

Euskararen plazan topo

Hala ere, oso modu desberdinetan iritsi dira hirurak euskarara. Zulaikak etxetik jaso du, bere gurasoak euskaldunak izanik. Ikastolan ikasi zuen eta euskaraz bizi izan da erabat.

Rodrigezen gurasoak Extremaduratik (Espainia) etorri ziren Euskal Herrira eta gaztelera hutsean hazi zen. “Etxean ez ezik, lagunarte guztia nuen erdalduna” Eskola nazionalan seigarren mailara artedena gaztelera ikasi zuen, eta seigarrenean, agertu zen euskara, irakargai moduan”.

Gerora, baina, institutuan beste ikastetxe eta herrietako ikasleekin bat egin zutenean esnatu zitzaion euskararekiko harra: “Euskaraz entzuten nituenean inbidia handia sentitzen nuen. Parranda giroan hasi ginenean, ez nintzen gai nigana euskaraz zuzentzen zirenei ulertzeko, eta orduan erabaki nuen euskara ikastea. AEKn hasi nintzen, gero euskaltegian eta gero barnetegian egon nintzen, eta halako batean hautua egin nuen euskaraz bizitzeko”. Euskaraz amestera iritsi zen arte.

Agirretxek etxean entzuten zuen euskara, aita erretil-darra eta ama lasartearra izanik, biak euskaldunak. Haur eta nerabe garaiko eskola guztiak, ordea, gaztelerez jaso zituen, eskola nazionalan. Kanean eta lagun-artean ere gaztelerez bizi zen. “16 urterekin eman nuen izena gau-eskoletan, euskaraz alfabetatzeko, eta magisteritza ere euskaraz egin nuen gero. Gaztarotik aurrera izan nuen euskararekiko atxikimendua, eta hortik etorri zen militantzia ere”.

Gurutzatzen ez ziren hiru bide paralelo ziren Zulaika, Agirretxe eta Rodrigezenak. Bide horiek euskararen plazan elkartu ziren arte. “Euskarak eskaini digu amets



bat betetzeko bidea, ogibide bilakatu zaigu”, azaldu du Agirretxek. Baina harago doa: “Guretzat euskara ez da elkarrekin komunikatzeko bitarteko bat bakarrik, baidetik eta bada balioak transmititzen dituen bitarteko eder bat, beti ere oztopoen kontra egin behar dugulako lan eta bizi, eta izokinen moduan aritzen garelako saltoka, igerian, hegan, korrontearen kontra. Eta horrek ematen digu enpatia bat, gu bezela, ertzetan edo txikitasunean dauden beste errealitateekiko. Munduaren ikuskera bat da guretzat, eta denona eta denontzat izango den munduaren amets bat. Eta hori ere hizkuntzak ematen digu”.

“Ekintzailetasunetik eta baikortasunetik jarraitu du Zulaikak, eta baita haurraren ikuspegitik eta bere kulturatik ere. Izan ere haurra, berez, ausarta da eta beretzat gauza asko dira posible, agian helduaroan hain posible ikusten ez ditugunak. Hain zuzen ere, baikortasun horretatik eraikitzen dugu mundu justuago eta inklusiboago bat”.

“Haurra ausarta da eta beretzat gauza asko dira posible, agian helduaroan hain posible ikusten ez ditugunak. Baikortasun horretatik eraikitzen dugu mundu justuago eta inklusiboago bat”
Aiora Zulaika ‘Pirritx’

Kulturartekotasunaren erronkak

Errekak eta ibaiak, ibaiak eta itsasoak, nola bat egiten duten, halaxe egiten dute bat, pailazoen jardunean, euskarak eta aniztasunak, eta lehenaz ari ginela, bidera sortu da, ia oharkabean, bigarrena.

Agirretxek azaldu duen moduan, “duela 40 urte Lasperte-Orian bi komunitate ginen, gaur egun 70 herrialde ezberdinetatik etorritako bizilagunak ditugu, 70 kultura eta izaera, eta erronkak biderkatuta. Euskal Herria eta euskarak erronka izugarriak ditu aurrean, eta herri bezala, behar ditugu bitartekoak, indarra eta dedikazioa, errealitate horri behar bezelako arreta eta erantzunak eskaintzeko. Eta hori hizkuntzatik egingo dugu, besteen izaerara eta kulturara guretik gerturatuko gara, ‘gu’-ra iritsi arte”.

Kultur__eta hizkuntza__aniztasun horretan, oso beharrezkoa da, pailazoen ustez, teknologien eta sare sozialen mundu globalizatuan euskarak eta Euskal Herriak bere tokiari eustea. Izan ere, atzera begiratuta ikusten



bada ere neurri batean aurrera egin duela euskarak “beste denak ere hala doaz eta ohartu gabe, gero eta leku gutxiago hartzen dugu”, diote, eta Zulaikak gaineratzen: “Euskarak izugarrizko erronkak ditu, baita guk ere, herri bezala. Irekitasuna eta bisioa behar dugu, eta bitartekoak”.

Bizitzaren zutabeez mintzo da Agirretxe: “Bizitzan zutabe ezberdinak ditugu, familia, hezkuntza, herrigintza eta administrazioa, eta gaur egun, gehitu behar dioguna, hau, telefonoa, bere gorabehera guztiekin”, dio, berea eskuan hartuta. “Pertsona osatzeko, eta pertsona hori bere komunitatean osatzeko, zutabe horiek sendo egoitea garrantzitsua da. Horren arabera egingo dute batera edo bestera pertsonak eta komunitateek, horregatik, da inportantea komunitatetik jardutea eta erronkei erantzutea, zutabeetan sendo eta lankidetzan”.

Kulturen aniztasuna ez ezik, aniztasuna ere, bere zentzurik zabalenean hartuta, oso present dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Euren lanaren bidez aukera izan dute errealitate zeharo ezberdinak ezagutzeko, “imajina ditzakezunak eta askoz gehiago”, Zulaikaren hitzetan, eta horiekin guztiekin elkarlanean aritzeko.

Rodrigizek azaltzen du euren lanaren gakoetako bat: “Haur bakoitzak bere errealitatea du, bere sentipenak, bere bizipenak, eta munduan gertatzen denak ere denoi eragiten digu. Guk egiten duguna da elementu horiek hartu eta haurren hizkuntzara itzuli”. Era guztietako errealitateak agerian jarri dituzte, hasi familia eredu desberdinetatik eta era bateko zein besteko urritasuntara, hitz egin dadin horietaz etxeetan, kalean, eskoletan, zenbait gai tabu ziren garaia atzean utzita.

Ertzetan zirenen errealitate anitz hori nolabait saretu beharrenean bulkada sortzen hasia zenean, ohartu ziren horietako asko gazteleraz bizi zirela eta, beraz, euskara bera izan zitekeela sare indartsu bat.



“Haur bakoitzak bere errealitatea du, eta munduan gertatzen denak ere denoi eragiten digu. Guk egiten duguna da elementu horiek hartu eta haurren hizkuntzara itzuli”

Mertxe Rodriguez ‘Marimotots’

“Euskarak ere egon behar zuen hor. Euskarak ere bere behar bereziak ditu eta bere eskubideak urratuta, beste errealitate horiek denek bezala. Elkartasun horretatik sortu zen Irrien Laguna gizartegintza aurrena eta Bizipoza orain, 38 elkartek osatzen dutena”. Gaur egun Bizipozan daude, beste askoren artean, Irrien Lagunak, Ikastolen Elkartea, AEK, Hik Hasi, Elkar, Huhezi, ikastetxe publikoetako zuzendarien elkartea eta Euskal Herriko beste hainbat eragile, eta kolaboratzaile sare zabala dute.

Ekin, elkarrekin

Sudur gorria jantzita, berdin-berdin zapaltzen dute euren zapata handi koloretsuek Euskalduna Jauregia, basoa, ospitalea, herriko plaza edo ikuilua. Inon ikusten badute badela zer ikasi, zer konpondu, zertan lagundu, zer aldarrikatu, han izango dira sudur gorriak, euren umore eta balioekin. Bai, euren ideologiarekin. Hautu politikoa egina baitute sorreratik bertatik.

“Askotan esaten da pailazook ez dugula politikarik egin behar, eta ikastetxe eta ikastolek ez dutela politikarik egin behar, eta nik uste dut __Agirretxe ari da hizketan__ ezin dugula tranpa horretan erori. Guk politika egin behar dugu, bai kulturatik, bai hezkuntzatik; bai, behintzat, politikaz ulertzen badugu herri bat garela, herri bat izan nahi dugula, balio batzuekin bizi nahi dugula eta gure ikuskeratik ikusten dugun mundu horretatik bizi nahi dugula”.

Kulturan eta hezkuntzan, inplikaziorik gabe, nekez lortuko baita ezer. “Nahi badugu eredu izan, eredu izango gara ekinez. Konfiantza eskaini behar dugu, itxaropena, beste herri bat izan dezakeguna, gure herritik, hizkuntzatik eta nortasunetik”. Eta horrek denon parte-hartzea eskatzen du, elkarrekin aritzea, haurrengandik hasita, haurrek ez baitira geroa soilik, oraina dira.

Aurten Kilometroek omendu egingo dituztela eta oso eskertuta daudela adierazi digute, “zeren badira eragile gehiago honetan dihardutenak eta guretzat Ikastolek edo Kilometroek gure lana aitortzea oso inportantea da. Azkenean elkarrekin gabiltzanon eta gertuko aitortza oso eskertzekoa da” esan digute. Gainera, euren iritziz, “aitortza bakoitza aldarrikapen bat da”, egin dutenaren balioa azpimarratzen delako. “Honengatik, besteagatik eta harengatik egin digute aitortpena? Ba jarrai dezala festak! Jarrai dezagun bide horretan”.

BERDINTASUNEAN
ASKE ETA ERRESPETUZ GOZATU



Biele Group

PASSION FOR CHALLENGES



Ondo pasatu Kilometroetan!

BIELE GROUP EUSKARAREN ALDE

Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 · 20738 Urrestilla, AZPEITIA

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com

Azpeitiak laugarrenez antolatuko ditu Kilometroak



Aurtengoa ez da Azpeitiko Ikastolak Kilometroen festa antolatuko duen lehen aldia. Aurretik ere izan dira ikastolekin lotutako auzolanerako urte handiak herrian. Hau laugarren aldia da zehazki. Lau aldi, lau garai, lau premia, eta lau festa desberdin. Denak desberdinak, baina denak helburu nagusi bakarrarekin: Ikastolen alde egitea, diruz eta ekimenez.

Parte hartzea eta auzolana izan da ikastolen ezaugarrietako bat hasiera-hasieratik. Gurasoen parte hartzea, irakasleena, ikasleena, eta herritarrena. Herrigintza, azken batean. Eta horrexen erakusle dira Kilometroak jaiak ere. Ikastolako kideen eta herritarren artean antolatutako jai handiak dira Kilometroak. Lan asko eta poz handia ematen duten jaiak.

Denen artean antolatutako jai horiek, gainera, ikastolen betiko arazo bat konpontzeko izaten dira: diru arazo ei buelta emateko. Izan ere, ikastolek bertara joan nahi duten guztientzako eskola izan nahi dute, duten maila ekonomikoa izanda ere. Egoera asko hobetu da azken urteetan Azpeitian, baina eraikin berriak egin beharrak, administrazioaren laguntza nahi baino urriagoek, eta kuotak neurrigabe igotzera uko egiteak eguneroko lanean justu samar ibili beharra dakarte. Horretan laguntzeko ere izan dira Kilometroak, garaiak garai;

eguneroko martxan, arnasa. Barne kohesioa, antolaketa eta parte hartzea indartzeaz gain, oinarri ekonomikoa sendotzea ere ekarri ohi du festa handiak.

Aurtengoa baino lehen, hiru aldiz antolatu dira Kilometroak Urolan: 1979an Loiolan, eta 2000 eta 2011n Azpeitian. Esperientzia oso desberdinak izan ziren hirurak: aurrenekoan, artean ia ezezagunak ziren Kilometroak jaiak; bigarrengean, diru premia galanta zegoen, baina euria-goian behean, ez zen nahi besteko arrakasta lortu; eta hirugarrena, berriz, egun borobila atera zen: eguraldi ezin hobea izan zen, eta jendetza etorri zen Euskal Herri osotik.

1979an Loiolan egin zen jai hartan Azkoitiko ikastolaren eraikin berria egiteko dirua biltzea zen asmoa, eta diru zaku handia bete zen. Izan ere, eguraldia lagun, jende asko etorri zen orduan ere, oraindik nahiko berria zen festari babesa ematera. Izan ere, historiako hirugarren kilometroak jaia zen Loiolakoa. Beasainen egin zuten aurrena 1977an, eta Donostiako Ibaetan bigarrena 1978an. Loiolakoa hirugarrena zen, eta izan zuen arrakastarekin, esan daiteke orduan finkatu zela gaur egunera arte iritsi den Gipuzkoako ikastolen jaia. Handik aurrera urriaren aurreneko igandean ospatu dira beti Kilometroak.

Bailara osoko jendeak hartu zuen parte kilometroen antolaketan: 400 lagun inguru aritu ziren egunean bertan lanean. Eta bazen bailaraz kanpotik parte hartu zuenik ere: Jose Luis Zumeta pintore usurbildarrak egin zuen jai hartako logoa. 30.000 lagun inguru etorri ziren festara, tartean Joxe Migel Barandiaran eta Luis Villasante.

Euri jasa eta bero sapa

2000ko kilometroetan ez zuten halako zorterik izan. Diru premia handia zegoen. Izan ere, Publikazio legegaren ondoren, inbertsio handia egin behar izan zuen ikastolak egoera berrira egokitzeke: lurra erosi, eraikina egin... Ordurako Kilometroak jaiak ez zuten zerikusirik Loiolan egindakoekin; festa handia ziren dagoeneko Kilometroak, euskaltzale askoren zita huts egina. Eta horregatik, 'Hau da!' leloarekin dena prest zegoen 100.000 lagun hartzeko, baina euri jasa etengabeak ez zuten lagundu. 70.000 lagun inguru etorri ziren Azpeitira, eta egin zuen eguraldia kontuan hartuta jende asko bazen ere, ez ziren aurreikuspenak bete.





Hala ere, Euskal Herriko elkartasun sareak neurria eman zuen beste behin: Ipiniezu aterkia kilometroei leloarekin diru bilketa antolatu zuten eta diru mordoa batu zen; ia aurreikuspenak betetzeraino. Urte hartako kantaren letra Sebastian Lizasok idatzi zuen eta Imuntzo eta Belokik musikatu zuten. "Kilometroak 2000, jai bat biribila..."



Biribila 2011koa atera zen. 11 urte lehenago gertatu-takoaren guztiz kontrakoa gertatu zen: bero sapa egin zuen, eta jendetza etorri zen Azpeitira. Hainbestekoa zen beroa, egunaren bukaerarako edari gehienak gas-tatu zirela. Aurreikuspenak bete ez ezik pasatu ere egin ziren urte hartan, eta hamaika urte lehenagoko malkoak irribarretan urtu ziren. Klik! leloa izan zuen jaiak, Pako Aristik egin zuen letra, eta Zesatek! taldeak jarri zuen musika, Olatz Praten ahotsaz lagunduta.

Balorazio oso baikorra egin zuten antolatzaileek, ikastolak babes handia lortu zuelako, eta etorkizuna bazelako pozez: "Urte osoan ikastolaren komunitateak eginko ahalegina izugarria izan da, eta gaurkoan herritarrek oso ondo erantzun dute; era horretako ahaleginarekin ikastolen proiektuaren etorkizuna ziurtatuta dago".

Aurten ez dago jakiterik eguraldiak nondik joko duen, baina aurtengoa, aurrekoekin alderatuta, jai desberdina izango da. Zorionez, behar ekonomikoa ez da horrenbestekoa, eta lanari neurria hartuz, "txikira" jotzea erabaki dute Azpeitiko ikastolako kideek. Txikira, formatuari dagokionez, txikira baino gehiago, txikiagora. Izan ere, helburu handiak jarri dituzte urte osoan lantzeko: euskara, herrigintza eta kulturartekotasuna. Dagoeneko egin dituzte hainbat ekimen, eta oinarri horiei begira, eta eguna bera iritsi ez bada ere, baikorra da erabat urtea ematen ari denaren balorazioa.



Kilometroak 2024ko kantua



Izpiz izpi

2024ko jaiaren leloa, 'Izpiz izpi', izenburu harturik, Skapaie elektrotarangak konposatu du 2024ko Kilometroen abestia, ska erritmo alai eta dantzagarrian, eta musika ez ezik, taldeko kideek idatzi dituzte hitzak ere.

Aurtengo Kilometroen urtearen nahiz urriaren 6ko jaiak bide eta helburu dituen hiru ardatzak bildu nahi izan dira abestiaren hitzetan eta irudietan. Euskara, kulturartekotasuna eta aniztasuna, herrigintza dira hiru ardatz horiek.

Kantuaren eta bideokliparen prozesuan "herritik eta herriarentzat" filosofiari heldu nahi izan dio antolakuntzak, eta lehenetsua eta garrantzia eman nahi izan die herriko sortzaile, profesional eta eragileei.

Kantua nork egin zezakeen pentsatzen jarrita, laster ohartu ziren Ikastolan bertan zutela aukerarik eta onena. Izan ere, Skapaie elektrotarangako kide gehienak Ikastolako ikasle ohiak dira, kideetako bat irakasle ere bada da, gaur egun, Ikasberrin.

"Kantua nork egin zezakeen pentsatzen hasita, zalan-tzarik ez genuen izan; Skapaiek, nork bestela?", azaldu zuten antolakuntza bartzordeko kideek aurkezpenean. "Gazte alai eta jatorrak, euskaldunak, talentudunak, konprometituak, Ikastolan eta herrian ezagunak. Baldintza denak betetzen zituzten, eta gure zorionerako, baietz esan ziguten".

Skapaieko kideen hitzetan, "erronka polita izan da guretzat kantu hau egitea, izan ere, kide garen beste talde batzuetan kantuak egiten ditugun arren, Izpiz izpi da Skapaiek talde bezala sortu dugun lehena".

Doinua sortu eta hitzak harilkatu

Urtarrilean eman zien Gorka Artola Kilometroen koordinatzaileak kanta egiteko ardura eta laster jarri ziren lanean buru-belarri.

Ekaineko aurkezpenean azaldu zuten, Lantz izan da taldeko ardatza zeregin honetan, "doinutik hasi ginen, Lantzek hainbat proposamen ekarri zituen eta instrumentuekin hainbat froga egin ostean, apurka-apurka forma ematen joan ginen musikari, kantaren egitura gu-txi gorabehera zehaztuta utzi arte".

Ondoren, Kilometroen urteko ardatzetatik abiatuta, letra osatzen joan ziren. Euskara, auzolana, berdintasuna eta hezkuntza dira hitzek jasotzen dituzten ideietako batzuk.

Jaia eta sakoneko balioak uztartzen dituen kanta bizi eta mamitsua da horren guztiaren emaitza.

Grabaketa prozesuak

Konposatzeko lanetan ez ezik, aurrenekoz sartu dira kideetako batzuk estudio-grabaketa batean, "taldekide batzuk lehendik estudioan grabatzen ibiliak baziren ere, gutariko batzuentzat horrelako zerbait egiten genuen lehen aldia zen".

Azpeitiko Dinamoan grabatu zen kanta Kulturaz elkar-teko teknikariek, maiatzeko ostiral arratsalde batez. "Grabaketa arratsalde bakar batean egitea lortu genuen eta neketsua izan bazen ere, kontentu gelditu gara egindako lanarekin", diote Skapaieko kideek.

Bideoklipa

Herrigintza izanik aurtengo Kilometroetako ardatze-tako bat, antolatzaileek hasieratik lehenetsi zuten bideokliparen grabaketa ere bertan egitea. Hala, Kulturaz Kooperatibako kideei proposamena eginda, martxan jarri zen lantaldea.

Maiatza eta ekaina bitartean grabatu ziren irudiak, eta ikastolako komunitateaz gain, parte hartu zuten herriko eragile eta norbanako ezagun ugari ere. "Azpeitia herri saretua da oso eta urteetan landu den saretze hori agerian jarri nahi genuen gure bideoan ere. Ikastola sare horretan kide bat gehiago da, eta beste eragile batzuek hainbatetan egin duten bezala, kasu honetan, guri ego-kitu zaigu nolabait beste eragileak gurera deitu eta bilgune izatea", diote antolakuntzatik.

Izarraitzko Atea parkean grabatu ziren bideoklipeko irudi nagusiak. Skapaiekoek azaldu dutenez, "emozioz betetako eguna izan zen". Aitortzen dute "urduritasun puntu bat" ere izan zutela, abestia jendaurrean erakutsiko lehen aldia baitzen. Behin sabeleko azkurak bare-tuta, "guztia ederki joan zela esan daiteke. Jende pila bat gerturatu zen grabaketara eta guztion artean giro itzela sortu zen".

Ikastolako kideek azaldu dutenez, kantuaren egileak elektrotzaranga izateak ere izan du bere abantaila zentzu honetan, izan ere, ezagun da jendea nola biltzen den elektrotzarangen inguruan. "Taldea izan da, nolabait, gure eguzkilorearen erdigunea, eta haien bueltan bildu diren pertsonen irudikatzen dituzte hostoak, globo gorri, urdin eta berdeak astinduz, gure logoaren hiru kolore-ardatzak, euskara, aniztasuna eta herrigintzarenak". Nabarmendu dute, gainera, aurrerantzean Skapaie herri herri ibiliko den heinean ibiliko dela 'Izpiz izpi' ere, Euskal Herriko herri eta auzoetan barna.



Skapaie elektrotzaranga

Skapaie elektrotzaranga 2022an sortu zen, Sanjuandegi auzoko jaien testuinguruan. Auzo horretako jaietan azken urteetan jo izan zuen elektrotzaranga faltako zela jakin zutenean, Alex eta Julen Carrizo anaiak euren elektrotzaranga muntatzea pentsatu zuten eta laster hasi ziren taldea osatzeko kideen bila.

Azpeitiko Gaztetxeko Bertsio Gaua igaro berri zen eta bertan ska doinuak jotzen parte hartu zuen talde batengana jo zuten aurrena, eta bai onartu ere proposamena. Udal Musika Bandako kideak dira Carrizo anaiak eta baita Lantz Unanue ere. Hari bota zioten, ondoren, amua, eta hark ere kosk. Ideia bazuten, kideak ere bai, eta garrantzitsuena, ilusioa. Gainera gehientsuenak Ikastolako ikasle ohiak dira, eta beraz, ezagutzen zuten elkar.

Herrian sortu eta sei urtez Euskal Herri osoa zeharkatu zuen Skandalue elektrotzarangaren laguntza jaso zuten eta, hasieran, emanaldi bat izan behar zena, emanaldi zerrenda bihurtu da dagoeneko. Bi urteotan, dozenaka emanaldi eskaini baitituzte Euskal Herriko herri eta auzoetan, doazen tokira doazela, musika eta umore ona eramanez.

Gaur egun kide hauek osatzen dute taldea:

Lantz Unanue (ahotsak eta tronboia)	Joritz Galarraga (perkusioa)
Lur lurrebaso (ahotsa)	Julen Carrizo (saxofoia)
Janitz Larrañaga (gitarra)	Alex Carrizo (tronpeta)
Julen Briz (baxua)	Jon Martinez (tronpeta)
Enaitz Zubizarreta (perkusioa)	Markel Aranburu (tronpeta)





Izpiz izpi Doinua eta hitzak: Skapaie elektrotzaranga

Non egin bada
 une orokoa berezi
 Herritik ta herriarentzat
 datorrena hezi
 Kabian zenbat trebezi.

Barealdian oskol
 Hegaldi azkarrenean gezi
 Sasi denen gainetik sortu den lore
 Euskararen oinetan harresi
 Etor zaitetz ikastolak jaia du merezi.

Izpiz izpi piztu elkarrekin
 Ikastola auzo herri
 Etorkizuneko kimuen buru
 gure hizkuntzaren aberri.

Izpiz izpi piztu elkarrekin
 Ikastola auzo herri
 Auzolanarekin izango dugu
 gizartean zutabe berri.

Azpeitin berez
 geldirik ez bada erreka
 Aurten kilometroen
 festa da irriz beteta
 Badator katxiporreta!

Kultur-aniztasuna
 egunerokoaren oreka
 Berdintasunez heziz, biharko okina, maisua,
 artzaina ta poeta
 eskainiz denei merezi duten arreta.

Izpiz izpi piztu elkarrekin
 Ikastola auzo herri
 Etorkizuneko kimuen buru
 gure hizkuntzaren aberri.

Izpiz izpi piztu elkarrekin
 Ikastola auzo herri
 Auzolanarekin izango dugu
 gizartean zutabe berri.

Izpiz izpi piztu elkarrekin
 Ikastola auzo herri
 Izan eta izango diren hizkuntza
 zaharren ikasle berri.





Banatzaile baimendua:
Distribuidor autorizado

**ECO
VEN
PLUS®**
CONFORT
CERTIFICADO



✉ l.ecovenleihoak@gmail.com

- PVC
- ALUMINIOA
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- MOSKITERAK
- BALKOIAK
- ITXITURAK
- ...

☎ 943 85 11 81


Lastaola
leihoak

✉ lastaolaleihoak@gmail.com



Kamiseta zahar hura

Merke erosi eta gehiegitan jantzi dugun kamiseta zahar hura bezalaxe gelditu zaigu elkartasun hitza; xahututa, bularraldean zeharrargi, zuloz beteta. Oraindik gelditzen zaio berezko xarmatik zerbait, baina nekez ikus diezaiokegu berezko distirarik. Askok gehiegi erabili baitute, eta ez beti onerako. Hala ere, kilometroak eta ikastola hitzak entzunda, ezin burutik kendu hitz horren oihartzuna: besteentzat eta aldi berean geuretzat, geure pozarentzat, egiten duguna; elkarrekin egiten duguna, elkarrentzat. Elkartasuna zer den azaltzeko azalpena izan daiteke, baina ez al du ba balio, era berean, ikastola bat zer den eta kilometroak zer diren azaltzeko?

Besteek guretzat egin zituzten Kilometroak gehien behar izan genuenean. Azpeitiko Ikastola honek ere ez zituen hasiera errazak izan, eta besteen elkartasunari esker gaude oraingo tokian: beste herrietan ezagutzen ez genituen eta ezagutzen ez gintuzten guraso, irakasle, ikasle eta askotariko lagunek ogitartekoak prestatzen eta kamisetak saltzen egindako lan ordainezinari esker.

Horregatik, Artezkaritza Batzorde honek jakin bazekien baietz esan beste aukerarik ez genuela Kilometroak antolatzeko proposamena jaso genuenean. Eta han ekin genion Kilometroak antolatzeko ardatzak definitzeari. Gure Andoni Garaizar izan genuen gidari, beti bezain handi, eta kafe tertulia batean bildu gintuen ikastolako kideok. Elkarrekin lanean; elkarrentzat. Une horretan hasi ginen egosten Kilometroen (eta gure ikastolaren) hiru osagaiak: herrigintza, euskara, kulturartekotasuna.




Izan ere, herri-gintzatik sortu zen ikastola, eta hortxe bakarrik du zentzua: herriarekin eta herriarentzat egina bada. Herriarentzat, bai, kulturaren, nortasunaren eta hizkuntzaren (ez ote da gauza bera euskaldunontzat?) arnasmune eta hauspo izateko baikaude. Eta herriarekin, noski, zertarako da ba ikastola gure modura, denon neurrira eta guztion ahaleginez egina ez bada? Bakoitzaren hitzak leku bat izatekotan du balioa; baita doinu, nortasun eta kultura berriz jantzita iritsi zaizkigun hitzek ere. Kulturartekotasunaren olatua hartzea baitugu orain erronka ikastolak nahiz herriak, euskara ez dadin ito hizkuntzen itsasoan; euskara guztientzako izan dadin helduleku bat. Hori ere, besteentzat nahiz geuretzat egin behar dugunaren adibide.

Eta berriro hitzen oihartzuna: kooperatiba, kooperazioa, elkarlana... Elkarrekin eta elkarrentzat egina, bestearentzat egiteak norberari poza ematen dion lekua. Hori gogoratzean berriz halako distira txiki bat hartzen du elkartasun hitzak. Eta gure ikastolak.

Amaia Mendizabal Elias

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibako
Artezkaritza Kontseiluko kidea



A Z K U N E

**FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
PRODUCCIÓN Y SERVICIO DE FRUTAS**

Mundua, bagoaz.

BANOOOA **GO!**

Irentsi mundua LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.

EZ du komisiorik Estatu osoko 10.000
kutxazain baino gehiagotan*.

EZ du komisiorik, LABORAL Kutxaren
aldetik, atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik dibisa
aldatzeagatik.

EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**

*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarean duzu; zure probintziazatik kanpo, beraz, entitate hauekako kutxazainak erabili ditzakezu: Caja Rural, Caja mas, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Argia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet Worldwide.
**LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urteko aurrera nahitaezkoa izango da erabitate horietan Bizum aktibututa izatea.



LABORAL
kutxa

4.

LOIOLA: ANIZTASUNA**Goizean zehar:**

Yoga, gimnastika erritmikoa eta judo erakustaldiak

11:00-13:00 Erronka**12:30-13:30** Kontzertua: Ro**14:00-14:45** Kontzertua: Eraldatzen**15:00-16:00** Kontzertua: Trini Fox**16:30-17:30** Kontzertua: Urtz**Beste ekintzak egunean zehar:**

Artisau azoka, Izpiz izpi jolasean, Zirku tailerra, Emozioen babeslekua eskulan tailerra, kapoera.



3.

IKASTOLA: EUSKARA**11:00-11:30** Kontzertua: Skapaie**12:00-13:00** Antzerkia: Troia kale antzerkia**13:00-14:00** Kontzertua: Leherkaitz**14:30-15:30** Kontzertua: Ukabil**16:30-17:30** Kontzertua: Tapia eta Leturia**18:00-19:00** Kontzertua: Janus Lester**Bihotz urdina**

AGURRIH LABORAL

Beste ekintzak egunean zehar:
Izpiz izpi jolasean: Bihotz Urdina eta Antxieta arkeologia taldea. Eitb: Makusi, Eroski elikadura tailerra.

Aniztasun funtzionala dutenentzat gune lasaia.

**KALEKO ANIMAZIOA:**Sahatsa Dantza taldea,
Euskal Herriko Joaldunak,
Itsasi Euskal Kultur Elkarte,
Benta zaharreko mutiko alaiak, Batukada, UK03**OHARRA**

Izpiz izpi jolasean:

**Bihotz Urdina eta Antxieta
arkeologia taldea**

Ekintza honetarako alde zuzenetik kilometroak.eus webgunean izena eman behar da.

3.

4.



Banku txartelak



Tiketak



Komunak



Arropa



2. ESKLABAK: EUSKARA

- 11:00-12:00 Izpiz Izpi Jolasean: Karaokea
- 12:30-13:30 Iagomago eta Julen magoa
- 13:30-14:30 Skate erakustaldia
- 14:30-15:30 Kontzertua: Deñe
- 15:30-17:00 Go!azen



Beste ekintzak egunean zehar:
Euskaltel Bizikleta zirkuitua
Puzgarriak: Laboral Kutxa, Reala Txokoa



1. HERRIKO PLAZA: HERRIA

- 10:00-13:00 Erronka
- 11:00-11:30 Bertsolariak
- 11:30-13:00 Herri Kirolak
- 13:00-14:00 Muxikoak, dantza Plaza
- 13:30-14:30 Erronka
- 14:30-15:30 Erromeria: Imuntzo eta Beloki
- 16:00-17:30 Kontzertua: La Basu



Aniztasun funtzionala dutenentzat gune lasaia.



2.



1.



Edalontzi /botila itzulketak Janariak Pastelak Taloak Patatak Edariak Iturria Kafea Izozkiak Jangela Puzgarriak Haurren jolasak Artisau azoka Gurutze gorria Puntu Morea Aniztasuna



Eguzkilorea eta argi izpiak

Urriaren 6a, Kilometroak Azpeitian. Gipuzkoako Ikastolen jai handia ospatuko dugun eguna izango da. Azpeitian egiten den laugarren aldia. 1979an egin ziren aurrenak Loiolan, 'Kilometroak 79' izenarekin; 2000. urtean bigarrenak, 'Hau da' leloarekin; eta 2011n hirugarrenak, 'Klik' lelopean. Laugarren aldi honek, berriz, eguzkilorea du irudi eta 'Izpiz izpi' lelo.

EGUZKILOREA da aurtengo Kilometroak jaiaren irudia. Hosto ezberdinek osatzen duten lorea, Ikastolaren komunitatea. Guztiak ezberdinak, eta lorearentzat, beharrezkoak. Etxean bizi direnak babesten ditu eguzkiloreak, eta argi izpiek ematen dute bizirik irauteko ezinbesteko dugun argia eta berotasuna. Hostoek inguratzen dituzten hazi berriak, berriz, gure etorkizuna dira, gure ardatzetan oinarrituta ernatzea nahiko genituzkeen egitasmo berriak.

Kilometroak, izpiz izpi lelopean hiru ardatz hartu ditugu helburu eta langai. Ikasturtean zehar landutako ardatzak eguzkiloretik irtendako hazi berriak bailiran. Etorkizuneko mugariak topatuz, herrian eta herritarrekin harremanak sendotuz, hezkuntza komunitatearen erronketan sakonduz. Kilometroak jaiaren egunean ez ezik, ikasturtean zehar antolatu ditugun ekintza guztietan landu ditugu hiru ardatzak: euskara eta euskal kultura; aniztasuna eta kulturartekotasuna; eta herrigintza.

Barrura begira. Halaxe diogu. Ikastolako komunitatean hiru ardatzak mugiarazteko proposamenetan sakondu dugu. Eta kanpora begira. Herriarekiko eta ikastolen sarearekiko harremanetan aurtengo hiru ardatzak mugiarazi ditugu.

Eta zer esan nahi dugu hiru ardatzetan sakondu nahiarrekin?

Euskara, zalantzarik gabe, gure ekinaren erdigunean dago. Azpeitia arnasmune handia da euskararentzat, eta euskara erdigunean jarrita eraiki nahi dugu gure bizitza, eta ekarpena egin nahi diogu euskararen indarberritzeari. Azpeitian, eskualdean, eta baita Euskal Herri osoan ere.

Kulturartekotasuna aipatzean gaur egun ikastolan eta Azpeitian kultur eta jatorri desberdinetako jendea bizi garela aldarrikatu nahi dugu, eta, gainera, beraiekin egin nahi dugula bidea, non gauden ahaztu gabe, eta euskaraz, baina inor bidean utzi gabe, elkarri entzunez, lagunduz eta elkarrekin errespetua landuz. Berdin, **aniztasunarekin**. Ezberdinon arteko harremanak aitortu eta sustatu nahi ditugu.

Eta **herrigintza** diogunean, nabarmendu nahi dugu herritik eraikitako ikastola garela, eta herriko eragile garen heinean, herriko beste eragileekin batera egin nahi dugula bidea, elkar entzute ari keta eginez, herri hobe baterantz.

Ardatz horiek ez ditugu arrotzak ikastolan, baina aurtengo kilometroen urtean ardatz hauen lanketari begirako oinarriak jartzeko harremanak egin nahi izan ditugu, aurrerantzean ere ardatz horietatik abiatuta lanean jarraitzeko.

Aurten, egun horretan bezain besteko arreta jarri dugu Kilometroen urtean, eta horren emaitza izan da KULTUR IZPIAK mugarren agenda. Kilometroak jaiarekin gure jarduna amaituko bada ere, eguzkiloretik jaulki diren hazi berriak zaindu eta sendotzea izango da gure erronka berria. Euskaratik, aniztasunetik eta herrigintzatik.



Kultur izpiak-Tutera Azpeitia

Bederatzi etapa, bederatzi errealitate

Tutera-Azpeitia, Azpeitiko Lagun Onak mendi elkar-tearen eta Kilometroak 24 lantaldearen artean osatu den ekimena izan da. Otsailaren 17an Tuteran hasi zen ibilaldia Azpeitira iritsiko da urriaren 19an, bederatzi hilabete-tan, bederatzi etapa egin ondoren.

Mendizaletasunaren bidez, euskarari eta herrigin-tzari aitortza egitea izan da ekimen honen helburua. Nafarroako Erriberatik Gipuzkoako Urola-Kostara artean dagoen aniztasuna bizi, naturaz gozatu eta harremanak sendotzea izan da bidea. Euskarak eta euskaldunok ditugun egoera eta izaera ezberdinak plazaratuz, gure hizkuntzaren alde ekinean gabiltzanon arteko harremanak egin nahi izan dira.

Azpeitiko Ikastola Ikasberriren aldetik, eskualdeko produktuak eta Kilometroetako eguzkilorea eskainiz lekuan lekuko errealitatea ezagutu eta euskararen alde egindako lana aitortu zaie eragile ezberdinei: ikastolak, euskara elkarteak, guraso elkarteak, herri ekimenak...

Lagun Onak mendi elkarteak antolatutako bederatzi etapetan, berriz, 250 kilometro egingo dira guztira, 6.000 metroko desnibel metatuarekin. Hauxe izan da urteko etapen agenda:

Hauxe izan da urteko etapen agenda:

- 1. etapa: Tutera-Milagro.**
32 km (otsailak 17)
- 2. etapa: Milagro-Faltzes.**
21 km (martxoak 16)
- 3. etapa: Faltsez-Lerin.**
24 km (apirilak 13)
- 4. etapa: Lerin-Iratxeko Monastegia.**
31 km (maiatzak 11)
- 5. etapa: Iratxeko Monastegia-Ubaba.**
28 km (ekainak 22)
- 6. etapa: Ubaba-Lizarraga.**
20 km (ekainak 23)
- 7. etapa: Lizarraga-Etxarri.**
27 km (uztailak 6)
- 8. etapa: Etxarri-Beasain.**
30 km (irailak 14)
- 9. etapa: Beasain-Azpeitia.**
27 km (irailak 19)

"Azken urteetan lortu dugunari arreta jarri beharko genioke"

Erriberan gauden. Euskararen arnaguneak urruti antzera sumatzen diren nafar lautadan, erromatarrek ager vasconum izendatu zuten eremuan. Ibilbidean Gari Urbizurekin, Mainer Ansotegirekin eta Blanca Garciarekin Erriberan euskararen egoera zein den jakiteko aukera izan dugu.

Tuterak 35.000 biztanle ditu eta biztanleen % 1,4a da euskalduna. Erriberan, berriz, euskaldunen kopurua ez da 1%era ere iristen herri gehienetan. Euskaraz bizitzea ezinezkoa bada ere, euskaltzale komunitate bizia dago eta euskara babesten duen elkarte eta kolektibo batzuk ere bai: Argia ikastola, AEK, Beterri Peña, Tuterako gazte asanblada, Unión Tutera futbol taldea, HaizeHegoa elkarteak...

"Hegoaldean dugun errealitatea ikusita, beti begiratu gaituzte pena begiekin" kontatu digute, eta begirada hori aldatu beharko litzatekeela azpimarratu nahi izan digute. Ezintasunari begira jarri beharrean, urratsez urrats egiten ari diren lorpenetan arreta jartzea, hain zuzen: "gutxinaka-gutxinaka hemengo egoera hobetzen ari da, eta, zonaldekoek eta laguntzeko asmoz hurbiltzen den jendeak gogoz eta poztasunez hartu behar dugu aurrean dugun erronka".

Erriberako euskaltzaleek euskaraz elkartzeko guneak identifikatuta dituzte: ikastola, lagun talde jakinak, kultur eskaintza eta jai zehatzak. Ikastolaren ekosistemak laguntzen diete guraso eta ikasleei gune hauetan bizia eta harremanak egiten, eta horrekin gustura ibiltzen direla diote: "Inguru hauek urteetan zehar mantendu ahal izan ditugu eta hala izatea espero dugu".

Kilometroak eta kilometroak, euskaraz ikasteko

Erribera osoko ikasleak ditu Argia ikastolak. Tuterako ikasleez gain, eskualdeko hainbat herritatik doaz ikastolara euskaraz ikastera: Villafrancatik, Cabreititik, Murtxantetik, Cascantetik, Citruenigotik, Coreilatik, Arketa-setik, Cabanilasetik, eta beste toki batzuetatik. Ikastolara joateko autobusa behar dute ikasleek, eta ikasturteko garraioa oso garestia da familientzat.





Ikastolen elkartetik laguntza handia jasotzen dute eta euren poltsikoetatik ere ekarpena egiten badute ere, herrietatik ikastolara joatea oso garesti ateratzen da Erriberako familientzat. “Horregatik, ikasle asko galtzen ari gara” diote irakasleek. Euskaraz ikasteko aukerak murrizten ari zaizkie eskualde horretako herritarrei.

Berta Molina eta Patxi Muñoz Argia ikastolako gura-soak dira, euren herritik 32 kilometrora dagoen Villafranca herrikoak (Alesbes). Duela hiru urte Villafrancako ikasle kopurua murriztu zenez, taxiz joan behar izaten dute ikastolara Irati alabak eta herriko beste hiru adiskidek.

“Taxi zerbitzua eta prezioa ikastolaren kooperatibak erabakitzen du, asamblearen bidez. Ikastolako garraio saila beti defizitarioa izanen da, baina familiok, ezin izango genuke prezio errealtaren ordainketa jasan”. Gurasoek erabaki honen gaineko irakurketa positiboa egiten dute. Ikastolak ikaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa eskaintzen diete, eta aukera guztiak zailagoak izan arren, eurek egindako hautuarekin gustura daude.

Zailtasun ekonomikoez gain, 16 urtetik aurrera euskaraz ikasteko oztopoak ugaritu egiten dira: “Iratik derrigorrezko ikaskuntza bukatu eta gero, gure zonaldean euskeraz ikasteko aukerarik ez du izango”.

Tokian toki, euskara eta euskaltzaleon behar eta nahien arabera ekintzak

Tokikotasuna, ekoizpen eta kontsumo jasangarria lotu zaizkio euskararen erronkari nafar lautadan. Errigora ekimenean parte hartzen du Blanca Garciak. Urtero udazkenean Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina ezaguna egiten dute, eta bertako irabazietatik Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntza ekonomiko handia ematen zaio. Hasieran Tuteran, Lodosa zein Biainako ikastolak, Erriberako AEK eta eskola publikoetan D ereduko lerroak bultzatzen lagundu zen, eta orain dela bost urte jauzi handiago bat egin zuten euskararen aldeko ekimen sarea indartzeko: Agerraldia.

Agerraldia Nafarroako hegoaldean eta erdialdean euskalgintza eta euskaltzaleen beharrak asetzen laguntzeko mugimendua da. Agerraldia sortu da euskararen ezagutza errazteko, erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskararen presentzia handitzeko. Horretarako, Agerraldiak urtero agenda bat osatzen du zonaldeko euskaldun, euskaltzale eta eragileekin harremanetan. Euskaldunen arteko harremanak estutzeaz gain, herritarren beharrak eta hausnarketak aztertzen dira. Horrez gain, Euskal Herriko gainontzeko eragileak Erriberako zonaldeari begira jartzeko saiakera egiten da, eta proiektu zehatzetan parte hartzeko aukera izaten dute.

Eredu mistoan, gero eta ikasle euskaldun gehiago

Etapetan aurrera goazela, Nafarroa Garaiko mendebaldeko eskualdea: Lizarrerria. Eta bertan, Lizarrako ikastola, Joseba Tristan zuzendari duela. Lizarran, biztanleen %20 inguruk daki euskara eta erabilera neurketen arabera, %6k hitz egiten du euskaraz. Eskualdean euskararen ezagutza goranzko bidean badoa ere, Lizarran euskaraz bitzea ere zaila da. Borondate indartsua behar da, euskal kontzientzia sendoa eta parean euskaldunak topatzea.

Lizarraldean euskararen eta gaztelaniaren arteko muga geografikoan bizi dira, ukipen gunean. Lizarratik iparraldera, Lizarragako tunela igarota, euskarak bizirik iraun zuen, eta hegoaldera berriz, XIX. mendean galdu zen bertako euskalkia. Administratiboki zonalde mistoan daude, eta horrek “euskaragatiko zenbait eskubide dituztela esan nahi duen arren, askotan ez dira bermatzen, batez ere Udalak zenbaitetan borondate eskasa duelako gai honetan” adierazi digu Nekane Pinillosek, Lizarrako ikastolako lankideak.

1970ean Lizarra Ikastola sortu zenean ia ez zegoen euskaldunik herrian, eta gaur egun berriz, 2024an, 600 ikasle ditu une honetan eta 2.000 ikasle inguru atera dira Lizarrako ikastolatik. Ikastolak ez ezik, ikastetxe publikoak ere D eredua du eta AEK-k ere bere fruituak eman ditu.



Iraunkortasuna, ezinbestean, bizirik jarraitzeko

Lizarra eta Estellerriko euskararen aldeko elkarteak da Garean Euskaldunon Elkarteak. 2007an eratu zen eta ordutik euskararen normalizazioa du xede nagusi. Noizean behineko ekintza puntualak antolatu beharrean, iraunkorak diren proiektuen alde egiten dutela adierazi digu Begoña Martinez elkarteko lehendakariak: "Lan asmo desberdinak ditugu. Alde batetik, haurrei lotutako ekimenak ditugu. Bestetik, helduentzako jarduerak. Eta hirugarrenik, komunikazio lerro bat dugu: Kotarro aldizkaria, eskualdeko ekimenen berri ematen duen euskarazko aldizkari bakarra".

Lizarrerriko errealitate soziolinguistikoa aldatzen ari da. Berrogei urtetik beherako biztanleria eskolatik pasatua denez, adin tarte horrek badaki euskara. Euskara erabiltzeko testuinguruak sortzea da hurrengo erronka, eta beraz, adin tarte horretarako eskaintzak berpentsatzeko erronka bete daude elkartearen.

Nafarroako euskara elkarteentzat ezinezkoa da, une honetan, lana profesionalizatzea. Euskarabideak eta udalak dirulaguntzak ematen dituzten arren, ez dago dirulaguntza nahikorik lana profesionalizatzeko. Bazkideen kuotak beste euskara elkarte askotakoak baino

handiagoak izan ohi dira, eta lan guziaz boluntarioekin egiten dute. "Atarrabiako karrikaluze elkarteak izango da, Nafarroako euskara elkartearen artean, salbuespenetako bat" dio Begoñak.

Gaztelaniazko aisialdi eta kirol eskaintza oso handiaren aurrean, euskarazko eskaintza ikusezina bihurtzen da, eta ezinezkoa gertatzen zaie esparru horretan lehiatzea. GAREAN elkarteko lehendakariaren esanetan, "Nolabait, gure presentzia eta eskaintza bermatua izan dadin, beste inon eskaintzen ez diren ekimenak proposatzea izan da gure hautua. Horrela gerturatzen zaizkigu euskaltzaleak".

Garean euskara elkartearen antzera, euskara elkarte askoren erronka da erreleboa. Modu boluntarioan parte hartzeko ohitura galtzen ari da, eta horrek eragin nabarmena du profesionalizatu gabeko gizarte ekimenetan.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Euskara bizi dugulako

Elkartasuna, kultura, hezkuntza,
zientzia, ingurumena, aisia...

Era guztietako adierazpenak
euskaraz bultzatzea gure gizarte-
konpromisoaren parte delako.

www.kutxafundazioa.eus



Aitona-amonak, haurren eskuetatik



“Amama, hemen eskulanak egiten ditugu. Libre aritzen gara, bakoitzak nahi duen lekuan. Niri gehiena txoko hau gustatzen zait, baina matematika ere egin behar da, eta handik ere pasatzen naiz. Txotx hauek elkarri lotuz kenketak egiten ikasten ari gara”. Zortzi urteko biloba bera gela erakusten ari zaio amonari. Hark ikasten zuen garaiko eskolarekin ez du zerikusirik Azpeitiko Ikastola lkasberrik. Pixka bat sinesgaitza ere egiten zaie halako sistema askearekin haurrak formatu ahal izatea, baina emaitzak hor daude. Miresmenez begiratzen diete elkarri.

Martxoaren 2an ikastolak atea ireki zituen, eta ikasleak gonbidatu zituen aitona-amonekin, izeba-osabekin edo gustu zutenekin bisita egin zezaten, Zurak eta ezpalak izena hartu zuen ekimenean. Mimo handiz beraiek egindako gonbidapenak eman zizkieten, eta nola egin uko halako aukerari! Irribarrea aurpegian, jendez bete ziren ikastolako gela eta pasiloak.

Irakasleek utzi egin zuten beren ohiko papera, eta bigarren-hirugarren plano batera pasatu ziren, haur zein nerabeek har zezaten protagonismoa. Beraiek eman

zituzten azalpenak, beraien erara eta beraien gustura. Irakasleak ere han ziren, beti bezala laguntzeko prest, irria ezpainetan, konplizitate keinuak eginez, ikasleen azalpenak entzuten.

Urriaren 6an goia joko duen auzolan handia zer den ikasteko ere balio izan zuen egunak. Ikaslerik zaharrena enkargatu ziren bisitariak eroso egoteko mokadua prestatzeaz, eta hura antolatzeaz: patata-tortila atera, bizkotxoak zatitu, basoak garbitu... Lana gustura egiteko urtea ere bada Kilometroen urtea, eta hantxe hasi zen aldaparik gabeko bidea.

Ikasleek erakutsitako txokoak ezagunak dituzte askok. Ikastola ez da urrutiko leku bat, hantxe ibiltzen dira aitona-amona, osaba-izeba eta guraso asko bilobak eramaten, jasotzen... Baina gauzak ez dira berdin ikusten norbere begietatik eta besterenetik. Ikastolara eskutik ertsita eraman zituzten ikasleentzat hura zer den ja-

Ikasleek ikastola erakutsi zieten aitona-amonei eta gainerako senitarteko eta lagunei. Baita mokadu goxoa prestatu ere



kin zuten bisitariak. Eta zer hori, ez da fisikoa bakarrik. Emozioak ere transmititu zizkieten elkarri, norbere gus-tukoena zer den, zer ez, zein txokotan egiten dituzten ha-rremanak, eta norekin, eta nolakoak...

Halako harrotasun bat nabari zen Azpeitikoan ikasto-lak segida izan zezan Ikasberri kooperatibaren eta bere eraikinaren sorreran buru-belarri aritu zirenen gan. Gu-raso ziren orduan, aitona-amona orain. Komentarioren bat ere entzun zen: "Merezi izan zuen orduan egin behar izan genuen borrokak". Izan ere, herrian ez zen erraza izan ikastolari eustea. 1993an Buesa legea izenez eza-gutzen den EAeko Hezkuntza Legea onartu zutenean, ikastolen lerroa desagerrarazi eta lerro publikoan edo pribatuan egin nahi zuten aurrera erabaki behar zu-ten ikastolek. Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako ikasto-lak batzen zituen Izarraizpe kooperatiban publikoaren aukera nagusitu zen egin ziren bozketetan, baina ez zuen lortzen kooperatibisten bi herenen babes. Eta hori, be-



harrezkoa zen kooperatiba desegiteko. Egoera zaila zen, eta akordioetarako aukerak zaildu zituzten publikoaren aldekoek. Ikastolarekin jarraitu nahi zutenek, zerotik egin behar izan zuten bidea, urteetako esperientzia la-gun. Hala egin zuten: 95ean eratu zuten Ikasberri koope-ratiba eta 96an inauguratu gaur egungo eraikina.

Zurak eta ezpalak ekimena bide hori hartu zute-nei eskerrak emateko modu bat izan zen, baina ez hori bakarrik. Asko dira garai hartan ikastolaren bidean toka-tu ez ziren arren, gerora ikastolara etorri direnak. Haiei guztiei eskerrak emateko modu bat ere izan zen. Haiek guztiak elkartzekoa. Lehengoak eta oraingoak elkartu, kilometroen egunean sortuko den garrari aurreneko iz-piak jartzen hasi, eta etorkizunari ateak parez pare ire-kitzeko eguna. Elkarrekin, auzolan handian, aniztasuna eta kulturartekotasuna ardatz eta euskara zubi hartuta, beste urte askoan egin nahi den bidearen hasiera.

CALDERERÍA

CPIK

Kultur izpiak- Ikasle topaketak

Elkar ezagutuz eta ondo pasatuz, euskaraz

Kultur Izpiak egitasmoaren barruan, Ikasle Topaketa egin zen apirilaren 19an, Euskal Herriko hainbat tokitako gazteak elkar ezagutzeko, euskaraz aritzeko eta elkarren esperientziak elkartrukatzeko helburuz. Azpeitiko Ikastola Ikasberriko DBH4ko eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleek gonbidatuta, Oiongo San Bizente Ikastolatik (Araba), Getxoko San Nikolas Ikastolatik (Bizkaia), Zangozako Ikastolatik (Nafarroa) eta Baionako Bernat Etxepare Lizeotik etorritako 200 ikasle inguruk parte hartuko zuten Azpeitian egindako egun osoko jaietan. Kilometroko antolaketa taldeak, UEMArekin eta Zapparraie euskara taldearekin elkarlanean antolatu zuten egitaraua.

Azpeitiko Ikasberri ikastolan egin zitzaizkien harre-ra eta ongietorria Ikasle Topaketan parte hartu zutenei, eta Gorka Artola aurtengo Kilometroko koordinatzaileak "eskerrak" eman zizkien topaketan parte hartzeko azaldutako gogo onagatik. Gogorarazi zuten Ikastolen Elkarrekin edo ikastolen sarea Euskal Herri osoan dagoela antolatuta, eta Euskal Herri mailako sare egituratu eta antolatu bakarrenetakoa dela, eta hezkuntza arautuaren esparruan, sare antolatu bakarra dela. "Euskal Herria anitza da, ikastola mota asko gara eta aniztasun horrek egiten gaitu aberats. Aniztasun horretan elkarrekin izandako harremanetatik eraikitzen dugunak, hain zuzen, aberasten du gure sarea, eta baita pertsona zein talde gisa izan nahi dugun hori ere".

Elkarrekin Ikastola izanda, Ikasle Topaketa eremu desberdinetako eta askotariko ikasleen topaguneak lantzeko asmoz antolatu zutela adierazi zuten Artolak ikasleei, elkar ezagutzeko aukerak bultzatuz eta elkarrekin ondo pasatzeko topagunea sortuz.

Toki desberdinetakoak izanda ere, denak batera-tzen dituen elementuak euskara eta euskal kultura direla nabarmendu zuten Artolak ongietorriko hitzartzean. "Euskaraz ikasi eta bizi nahi dugun komunitatea osatzen dugu. Eta Ikastolaz harago, euskararen indarberritze-ari ekarpena egin nahi diogu denok. Gure herrietan, auzoetan, lanean gabiltzanean, kirolean edo bestelako edozein eremutan. Bakoitzak bere testuinguru eta ahalmenetatik eraginez indarberritu nahi ditugu euskara eta euskal kultura. Herri nortasun bat gara".

Ongietorriaren ondoren, Ikasle Topaketan bildutako ikasle guztiak elkarrekin Sanagustin kulturgunera joan ziren, eta bertan Iñaki Lurrebaso soziolinguista eta UEMArekin ikerketa teknikariak Euskararen egoera gaur hitzaldia eskaini zuten, UEMArekin eskutik. Kulturgunera adiaraztu zuten gazteek lurrebasoren hitzaldia.

Jolaserako tarte hartu zuten ikasleek hitzaldiaren ondoren. Elkar ezagutzeko jolasak eta Mihiluze jolasa egin zituzten herriko plazan, talde txikietan elkartuta, eta Zapparraie euskara taldearekin elkarlanean. Bukarantz, denek bat eginda, azterketak euskaraz egiteko aldarria egin zuten bost ikastoletako ikasleek, eta talde argazkia atera zuten.

Elkarrekin bazkaldu zuten guztiek Azoka Plazan, eta bazkalostean bingo musikatuan jolasteko parada hartu zuten. Ikasle Topaketa bukatzeko, Baionako Bernat Etxepare Lizeoko txarangarekin dantzan eta kantuan ibili ziren bai plazan eta bai Alde Zaharreko kaleetan ere.

Eguraldi ederra lagun, ederki pasatzeko aukera edukitu zuten Ikasle Topaketan bildutakoek, elkar ezagutuz eta euskaraz.





“Aberatsa eta ederra”

Maddi Egiguren Azpiolea. Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikaslea. (Terminala, Bigarren Batxilergoa)

“Azpeitian iragandako Ikasle Topaketaz erran dezakedana aberatsa eta ederra izan zela da. Iparraldea eta hegoaldea elkar ezagutzeko eta batzeko aukera izan zen. Euskararekiko norberak genuen bizimodua partekatzeo aukera zabaldu ziguten. Musikaz eta alaitasunez beteriko eguna izan zen, euskalkiz nahasturiko giroa. Euskaldun gisa esan dezaket egun berezia izan zela, berriro bitztea gustatuko litzaidakeen eguna. Euskaratik eta euskaraz jende berria ezagutzeko aukera eduki genuen. Mila esker bihotzez, Azpeitia! Topaketak Azpeitira itzultzeko gogoia piztu digu Etxepareko ikasleoi!”.

“Euskararen garrantziaz kontzientziatzeko baliagarria”

Afrika Arandia eta Uxue Gonzalez, Oiongo San Bizente Ikastola (DBH 4)

“Oso dibertigarriak izan ziren Ikasle Topaketarako Azpeitiko Ikastolak proposatutako ekintzak. Giro oso ona egon zen bertan bildu ginen ikasleonen artean, eta jendea larrituta azaldu zen euskararen egoerarengatik. Euskararen egoeran hainbat lekutan nolakoa den ezagutzeko aukera izan genuen, baita geurearekin alderatzeko ere. Ikusi genuen euskararen egoera oso desberdina dela Euskal herrian zehar, baita guk gazteok denon artean aldatu dezakegula ere. Gure proposamena da horrelako topaketa gehiago egitea beste urte batzuetan ere, gazteok euskararen garrantziaz kontzientziatzeko baliagarria delako”.

“Ikasleonen arteko harremana oso ona izan zen”

Lorena Salido Lima eta Naia Mena Lizarralde, Oiongo San Bizente Ikastola (DBH 4)

“Ikasle Topaketan oso ondo pasatu genuen eta egin genituen ariketak oso dibertigarriak izan ziren. Sei jolas egin genituen, eta gure taldean egon ziren beste ikasleekin oso ondo moldatu ginen. Euskal Herriko beste toki batzuetan euskararen egoera nolakoa den jakitea oso interesgarria iruditu zitzaigun. Ikasleonen arteko harremana oso ona izan zen, jende alai eta jatorra zen. Beste ikasle batzuekin euskaraz aritzea, hizkera desberdinak entzutea eta sozializatzea ondo egon zen. Faltan bota genuena herrian zehar libre ibiltzeko denbora izan zen”.

“Beste leku batzuetako euskararen egoera ezagutzeko aukera izan genuen”

Gorka Aranda, Mikel Lazaro eta Unax Hernandez, Oiongo San Bizente Ikastola (DBH4)

“Ikasle Topaketa euskaraz bitzetzeko egun ezin hobea izan zen. Euskalki desberdinak entzuteko aukera izan genuen, eta hori azpimarratuko genuke. Ikasleonen arteko harremana oso ona izan zen, eta azkar hasi ginen beste ikastola batzuetakoekin hizketan. Euskara gure altxorra da, eta ezin dugu galdu. Topaketan Euskal Herriko beste leku batzuetako euskararen egoera ezagutzeko aukera izan genuen, eta oso polita izan zen hori. Jolasak ere oso ondo egon ziren, bertsoekin, asmakizunekin, galderekin... Horrelako egunak urtero egin beharko lirateke”.

“Esperientzia oso aberasgarria izan zen Azpeitikoak”

Iria Apraiz, Ilargi Aresti, Aizpea Basarte, Dunixe Etxebarria, Garazi Foruria, Aratz Gorriño, Ibai Herrero, Asier Hurtado, Unai Lopez, Nara Manrique, Joritz Martin, Iraia Martinez, Naia Mendiola, Oier Molinuevo, Maider Mezo, Uxue Palacio, Irazu Rodriguez, Garazi San Pedro, Mikel Sanchez, Iago Urkidi-zarragoitia, Diego Valladares, Hodei Vicario eta Iñaki Zubizarreta. Getxoko San Nikolas Ikastola, DBH4.

“DBH4 maila osoko ikasleak eta hiru ikasgeletako tutoreak joan ginen Azpeitira, bi autobusetan banatuta. Ikasle Topaketan lurralde desberdinetako ikasleekin batu ginen eta bakoitzaren herrian euskarak duen presentziari eta egoerari buruz hitz egin genuen, eta elkarrizketa hori elkar hobeto ezagutzeko baliagarria izan zen. Mihiluze jolasean giro ona sortu zen gure artean eta asko disfrutatu genuen besteekin. Esperientzia oso aberasgarria bizi izan genuen Azpeitiko topaketan, herri desberdinetako gazteekin bilduz. Ederto baten antolatua izan zen eta datorren urtean berriro ere han izango gara. Mila esker Azpeitia!”

“Jolasak entretenigarriak eta dibertigarriak iruditu zitzaizkigun”

Zangozako ikastolako DBH4 mailako ikasleak

“Azpeitiko Ikasle Topaketan asko disfrutatu genuen; izan ere, antolatutako jolasak entretenigarriak eta dibertigarriak iruditu zitzaizkigun. Era berean, hainbat herri-tako zenbait ikaslerekin harremanak izateko aukera izan genuen. Ikasle Topaketatik nabarmenduko genukeen egon zen giro ezin hobea izango litzateke. Gainera,

ekintza lagungarria izan zen euskara gehiago erabitzeko. Euskalki ezberdinak entzutea ere asko gustatu zitzaigun, eta besteekin harremanak izatea gutxi kostatu zitzaigun. Uste dugu urtero egin beharko litzatekeela horrelako topaketaren bat ikasleen artean”.

“Ikasle Topaketan eguna oso ona izan zen”

Enait Segurola, Azpeitiko Ikastola Ikasberri (Batxilergoko lehen maila)

“Ikasle Topaketak antolatzeko, aurrez ikasleok irakasleekin pare bat bilera egin genituen, eta gelaka ideiak bota genituen guri zer egitea gustatuko litzai guken proposatuz. Ikasle Topaketan eguna oso ona izan zen, Euskal Herriko beste lurralde batzuetako ikasleen egoerak eta esperientziak ezagutu genituelako eta jendea ezagutzeko aukera izan genuelako. Sanagustin kulturgunean izandako hitzaldian, berriz, Euskal Herriko beste toki batzuetan euskararen egoera zein den jakiteko aukera izan genuen. Mihiluze jolasa oso originala izan zen eta oso ondo pasatu nuen, baita bazkalosteko bingo musikatuan ere. Aberatsa izan zen eguna, eta egon zen aniztasuna nabarmenduko nuke. Ikasle Topaketak egingdako ekarpena zein izan zen? Konturatu nintzen euskara benetako altxorra dela eta zaindu egin behar dugula. Ikasle Topaketa oso positiboa izan zen”.



» Babestu **BERRIA**

Zure babes ekonomikoa ezinbestekoa zaigu euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko. 2025erako 3.000+ izan gaitezen, **egin zure ekarpena:**

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro egunean)

Gazteen* ekarpena

30€

(* 30 urtetik beharokak)



Kolore askotako izpien jaia

Egun borobila atera zen apirilaren 27akoa. 'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' eguna ospatu zen Azpeitian, Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibak eta Azpeitiko Udalak elkarlanean antolatuta. Euskara zubi izanda, eguna hain ederra egitea posible egiteko, beren alea jarri zuten beste hainbat eragilek ere. Ospakizunaren parte izan ziren Atzegi, Dislegi, Marea Urdina, Kulturaz, Berrria, Guka, UEMA, Ikastolen Elkartea, beste kulturetako komunitateak, ikastolako komunitatea eta oro har, egun guztian zeharreko ekintzetan parte hartu zuten guztiak. Aurtengo Kilometroen ardatzak erdigunean __euskara, kulturartekotasuna eta aniztasuna, eta herrigintza__, egun bete-betea izan zen.

Egunean bai, baina jaiaren egunaren aurretik ere, antolaketa lan handia egin behar izan zuten taldean, harremanak landuz, ekintzak proposatuz, egitaraua osatuz... Bizpahiru hilabete lehenagotik hasi ziren biltzen Kilometroak jaiaren antolatzaileak Nagore Arroita Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Aniztasun teknikariarekin eta herrian bizi diren hainbat kultur komunitateetako ordezkariarekin.

'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' jaiaren egunean herriko plaza apainduta izateko ere, lanean jardun zuten bezperetan Atzegiko kideek eta ikastolako ikasleek. Ikastolan eta Dinamoa sormen gunean egin zituzten herriko plazan ipinitako kartel nahiz mural koloretsuak, Kulturaz kooperatibakoek lagunduta.

Euskara zubia

'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' egun osoko jaiak bete-betean lotu zituen Kilometroen urtean landu diren hiru ardatzak.

Euskara, ikastolen ardatza eta oinarria ez ezik, "zubi" ere izan zen eguna antolatzeko orduan gainerako kulturarekin eta hizkuntzekin. Horrez gain, Azpeitian abian den Euskara eta kulturartekotasuna proiektuari lotuta kokatu zuten egun hori; Azpeitiko Udalak, UEMAk, Huhezik eta herriko ikastetxeek zein eragileek elkarlanean abian duten egitasmoa da. Azpeitiko Ikastolak "kulturarteko harremanen adierazpidea euskara izatea" nahi du. "Gure hizkuntza delako, alde batetik; eta euskaratik eraiki nahi ditugulako herri honetako askotariko harremanak, bestetik. Aniztasunaren harreman hizkuntza euskara izanda, Euskal Herrian hizkuntza gutxiagotua kulturarteko harremanen zubi eraikitzailea izatea nahi dugu".

Herrigintza kontuan hartuta, berriz, 'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' eguneko egitaraua gainerako eragileekin elkarlanean antolatzeko Ikastolak "ahalegin berezia" egin zuen. "Ekintza guztiak izan ziren elkarlanean antolatutakoak, ez genuen ezer antolatu guk bakarrik. Sinesten dugulako elkarlanean, komunitatearen indarrean, auzolanean".



Hodei artetik izpiak

'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' eguneko ekitaldiak hasterako, goizean goiz, lanean jardun zuten auzolanean ikastolako komunitateko kideek herriko plaza apaintzen, bazkaria prestatzen... Eguraldia txarra izan zen, eta horregatik, egitarauko ekitaldi batzuk egokitu egin behar izan zituzten. Hala ere, jendeak aldaketen aurrean jarrera ona erakutsi zuen, eta alde horretatik gus-tura gelditu ziren antolatzaileak. "Poza eta komunitate izpiak indartsuak direnean, ezin baita gelditu aurrera doan bidea".

11:15ean hasi zen festa eguna, aureskua dantzatuta. Segidan, zunba saioa egin zuten plazan bildutakoek, Regla Hernandez zunba irakaslearekin; jende ugari animatu zen dantzara. Zunba erakustaldia hasterako, hainbat postu jarrira zeuden plazan, besteak beste, Nikaragua, Honduras, Argentina, Sahara, Peru, Maroko, Kuba, Euskal Herria, Mali eta El Salvadorkoa. Postuetan herrialde bakoitzeko ordezkariak egon ziren, eta elkarren berri izateko eta ezagutzeko aukera izan zuten. Gainera, herrialde bakoitzeko eskulanak, jatekoa, argazkiak, arropak eta abar jarri zituzten eskuragai, eta musikaz nahiz dantzaz ere gozatu ahal izan zen. Jende asko animatu zen bateko zein besteko postuetako jakiak dastatzera, eta giro polita sortu zen jan-edanaren bueltan.



Bien bitartean, Azoka Plazaren barruan jolasak eta eskulanak izan ziren haurrentzako, Berria egunkariak eta Dislegi elkarteak antolatuta. Han bildutako haurrekin batera eskulanak egiten eta jolasean ikastolako DBH4ko eta Batxilergoko lehen mailako hainbat ikaslek jardun zuten, eta barre izpi txikiak eta irribarre handiak ikusi ahal izan ziren.

zaher
GRUPO



Ondoren, elkarrekin bazkaltzeko garaia iritsi zen, eta Kilometroetako eguzkilo redun zapiak lepoan, haur, gazte eta heldu bildu ziren Azoka Plazan bazkaltzeko, eta auzolanean prestatutako bazkari ederraz gozatu ahal izan zuten.

Egun ederra izan zen, eta euri artetik ere ikusi izan ziren izpiak. "Kultur aniztasuna izan zen festaren goiz partean nagusi, eta elkarrenganako errespetuan, euskara erdigunean jarrita, egin behar dugun bidean aurrera egiteko beste harri piloa jarri genuen", zioten 'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' jaiaren antolatzaileek.

Krostadarra

Arratsaldearen hasiera Ekain Txouren ikuskizunak alaitu zuen. Pailazoak udaletxeko arkupeetan eskaini zuen Berria egunkariak antolatutako saioa.

Arratsaldeko zazprietatik aurrera, berriz, kolore eta forma guztietako izpiek bat egin zuten Krostadarrean. Plazatik irten eta Alde Zaharreko kaleetan barrena 1,2 kilometroko ibilbidea egin zuten lasterketara batutako

haur, gazte eta helduek. Kros parte hartzailea Atzegirekin eta Marea Urdinarekin elkarlanean antolatutakoa izan zen.

Krostadarrari musikak eta dantzak hartu zioten lekukoa, eta aurrena, Skapaie elektrotxarangarekin dantzan ibiltzeko aukera izan zen, eta jarraian, Belako eta Nize taldeen kontzertuarekin gozatzekoa, Sanagustin kulturgunean.

Egunean lehenak euri tantak izan ziren, eguzki izpiak gero; eguraldiak batera zein bestera egin zuen egun osoan zehar. Jaiaren izaera bera ere halakoxea izan zen, askotariko pertsonak egin zuten bat 'Aniztasun izpiak, Kilometroak txikia' jai egunean. Antolatzaileak saiatu ziren kultur aniztasuna, aniztasun funtzionala, adin aniztasuna eta aniztasun guztiak kontuan hartuta prestatzen, eta "asebeteta" gelditu ziren izandako emaitzarekin. "Egun ederra izan zen, eta hodeien artetik ere ikusi genituen izpiak".



agirre
oparidenda

erdi kalea 1
azpeitia



gertu
in primategia
INPRESIClanak

kilometroarekin bat!

ALDIZKARIAK ▼

▼ LIBURUAK eta KATALOGOAK

▼ AGENDA eta EGUTEGIAK

Inauteriak, munduz mundu

Euskal Herrian bezala, munduko txoko ezberdinetan ospatzen dira inauteriak. Neguko solztizio garaia da eta urte sasaio aldaketa. Herrialde guztiontzat unibertsalak diren errituetan arreta jarriz eta kulturartekotasunaren ardatza mugiaraziz, euskal inauterien eta munduko inauterien arteko zubiak eraiki dira aurtengoan, ikastolan.

Hala, euskal inauterien lanketarekin ekin zitzaion, ur-tarrilean. Erritu eta kultura gisa nabarmentzen ziren ezaugarrietan sakondu zen ikasleekin: naturaren eta gizartearen arteko harremanak, mozerroak, dantzak eta doinuak.

Euskal inauterien ikuskizuna atontzeko kartelak egin zituzten Lehen Hekuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek (ondo?). Munduko herrialde ezberdinetako inauteriak irudikatzen zituzten kartelak jarri ziren, otsailaren 9an, Izarraitz frontoian egin zen ikuskizunean. "Munduko Inauteriak" lelopean egin zen afari jendetsuan, jatorri ezberdinetako ikastolako gurasoek prestatu zituzten azkenburukoez gozatzeko aukera ere izan zen.



Periferian ere, euskararen haziak ereiten

"Ikastolak herriari" egitasmoaren baitan eta Euskal Herriko Ikastolen Federazioak egindako deia erantzunez, martxoaren 10ean, Azpeitiko Ikastola Ikasberriko arduradunek Beskoitzera egin zuten bidaia. Herri lapurtarrean egin zen ekitaldian, aitortza egin zitzaion Euskal Herriko muga inguruetan dauden zortzi ikastolei, euskal kultura inguru horietan bultzatzeko egiten duten lan itzelagatik: Beskoitzeko Ikastola, Sohütako Eperra Ikastola, Zangozako Ikastola, Lodosako Ibaialde Ikastola, Tuterako Argia Ikastola, Vianako Erentzun Ikastola, Oiongo San Bizente Ikastola eta Balmasedako Zubi Zaharra Ikastola.

Beskoitzen hunkiturik hartu zuten aitortza, euren Ikastolaren etorkizuna jokoan baitzegoen une hartan. Herriko etxeak hala erabakita, Beskoitzeko Ikastolak ordura arte erabilitako lurrak utzi behar zituelako jakinarazpena jasoa zuten, eta aldarrikapen betean ziren.

Testuinguru horretan, Kilometroen logoa den eskuz eginiko eguzki-lorearen oroigarria eman zitzaion Beskoitzeko ikastolako arduradunei. "Eguzki-lorearen hosto guztiak dira desberdinak eta denak beharrezko, eta erdigunetik, gure ikastoletatik, Beskoitzekotik ere, aterako dira euskararen haziak", adierazi zuen Azpeitiko Ikastolako kideak.



Kilometroen izpiak Korrikan

Harro Herri izan da 23. Korrikaren leloa eta, beste behin, euskaraz bizitzeak sortzen duen harrotasunaren erakusgarri izan da Azpeitia. Euskaraz eta euskararen alde.

Ikastolako komunitateak euskararekiko konpromiso irmoa erakutsi zuen. Lehen Hezkuntzako ikasleak izan ziren lehenak Korrika Txikian. Hurrengo eguneko egun-sentian ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen, langileen eta familien txanda izan zen. Kilometroen irudia den Izpitzoren laguntza izan zuten, gainera, ibilbide osoan.

Azpeitian ez ezik, Argantzonen ere egin zuten ikasleek euskararen alde korrika Kilometroetako izpiak Arabararino eramanez (Trobiñuko konderrria). DBH 3ko ikasleek Argantzongo ikastolakoekin batera egin zuten kilometro batean korrika.

Azpeitiko ikastolakoek eguzkilorea oparitu zieten Argantzongo ikastolakoek, eta haiek Argantzona eta Trobiñu lantzen dituen Pirritx eta Porrotxen CDa oparitu zieten azpeitiarrei. Korrikan elkarrekin parte hartzeaz gainera, musikak girotuta, jolasean aritzeko aukera ere izan zuten. Eta lasterraldia amaitutakoan herriko plazan pin-txoak eta edaria partekatu zituzten.



**URBISTONDO
MARGOAK**

**SALBE AUZUNEA 35
20730 - Azpeitia (Gipuzkoa)
T. 943 815 781
E. info@urbistondomargoak.com
www.urbistondomargoak.com**

MARGOLANAK
MARGOAK
PAPER PINTATUAK
ALFONBRAK

Bertso sorta

Aita-alaben elkarrizketa, ikastolaz.

*Doinua: Ilun ikarak azken argia



Beñat Lizaso

Lehen ikasle, gaur betetzen det gurasoaren papera. Hamabi urte ditut ta daukat jakin-min a(d)ina galdera. Ikastolaren istorioa goaz bertsoz ematera. Aita-alaben elkarrizketa baginen eta bagera.

Jare Lizaso

Ikastolaren hasieretan hasten bagera kokatzen, lehen harria noiz ipini zen ezta hain zaila asmatzen. Baina jartzean datei begira puzlerik ez tet osatzen, nere adina zenuenean ikastolarik ez al zen?

Beñat Lizaso

Bazegoen, bai, ikastola bat geneukana parez pare. Ikastola bat bakarra zela uste genuen, halare. Baina borrokan jardun ondoren ezker, eskuin, goi eta behe denboraldi bat pasa genuen aterpe jakinik gabe.

Jare Lizaso

Ikastola bat bakarra zegoen zu gaztea zinenean. Borroka egin ta Ikasberri eraiki zen, azkenean. Baina batetik bira jauzia haundia da, aidanean. Taldeak nola banatu ziren berria egin zenean.

Beñat Lizaso

Orduan zegoen giroa ezin gaurkoarekin konpara. Famili asko hautsita zeuden dena zailtasun ta traba. Gu, berriz, geure inozentzian salto, jolas ta algara. Aiton-amonek esan ziguten zu hona eta zu hara.

Jare Lizaso

Familikoak zein auzotarrak urrutiko zein gertuko. Beraz, zu hona eta zu hara erabaki eta punto! Nik nere lagun multzoa daukat gelakide, lagun urko. Lagunengandik apartatzea ez nuke aguantatuko.

Beñat Lizaso

Kezkak ugaltzen ari zaizkizu pasatakoan harira. Gertukoenen hartu-emanak mantentzea zilegi da. Inoiz beldurrik etzazu izan daukazuunari begira, ume-umetan lagun direnak betiko izaten dira.

Jare Lizaso

Urteak pasa arren, oraindik zenbat kontu, zenbat marka. Poliki, baina aurrera goaz izpiz izpi, tantaz tanta. Aita, nik ere segi behar det gurpila berari biraka, aiton-amonen ilusioa nerea ere bada ta!

Beñat Lizaso

Aiton-amonek ilusioa zuten horri ekiteko. Nola eta non bukatu behar gendun, zegoen jakiteko. Hainbat urtean lortu dena, nork ez ote du, ba, maiteko! Gaur arte asko egin da, baina asko dago egiteko.

Biak:

Etxe askotan izango zuten holako elkarrizketa. Zalantzak eta galderak denok dauzkagulako gordeta. Heldu elkarrri eskutik gogoz ta ilusioz beteta. Batera baldin bagoaz, dena errezagoa da eta!



Urbil izpiz izpi euskara argituz!

www.urbil.es



UNIBERTSITATE GRADUAK



mondragon.edu/prest